

KUTXABANK KREDITUAREN BILAKAERARI BURUZKO BEHATOKIA

Kontsumorako maileguen bolumena % 3,1 haziko da Euskadin 2024an

- Maileguen guztizko stocka 166.500 milioi eurotik gorakoa izango da Estatu osoan
- CEPREDEk egindako ikerketaren arabera, maileguen saldoak % 6 hazten jarraituko du Euskadin 2025-2030 bosturtekoan


2024ko urtarrilaren 18an. Aurreikuspen Ekonomikoko Zentroak (Ceprede) beste azterlan bat egin du Kutxabankentzat, eta, kasu honetan, kontsumorako kredituaren merkatuan aurreikusitako bilakaera aztertu du.

Aurreikuspenen arabera, kontsumorako kredituaren guztizko bolumenak **berreskuratze-bideari ekin diola** dirudi, finantzatu beharreko kontsumo-ondasunen balioa handitzen ari den ingurune batean, prezioen gorakadaren ondorioz.


Julián Pérezek, Madrilgo Unibertsitate Autonomoan Ekonomia Aplikatuan katedradun eta Cepredeko zuzendari nagusiak, uste du bilakaera horrek "hurrengo ekitaldietan izango den ingurune ekonomiko on samarrari erantzuten diola, langabezia-maila murriztuekin eta inflazioaren moderazioarekin, kontsumoaren eta, beraz, bere finantzaketaren bilakaera positiboa ahalbidetuko dutelarik".

Horrela, eta 2023an zertxobait suspertu ondoren, kontsumorako kreditu-stockaren bilakaeraren zenbatespenek **% 3tik gorako hazkunde-tasak aurreikusten dituzte 2024an**, bai Euskadin, bai Estatu osoan.

Bilakaera positibo horren ondorioz, kontsumorako kreditu stock osoa **166.500 milioi** eurotik gorakoa izango da Estatu osoan, hau da, **% 3,5eko** igoera. Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, zenbateko hori **6.700 milioi** eurotik gorakoa izango da, **% 3,1** gehiago.



Erkidegoka, 2024an aurrerapen positiboak erregistratuko dituzte guztiek harpidetutako kontsumo-kredituen bolumenean.




2025-2030 denboraldia

Epe ertain eta luzerako prospektibari dagokionez, **2025-2030** bosturtekoan kreditu-bolumena % 5etik gora handitzea aurreikusten du azterlanak. **Euskadik** batez besteko tasa hori gainditu egingo du, % 6ko igoera izango baitu.

		Mercado de crédito al consumo					
		2016-2020	2021	2022	2023	2024	2025-2030
Stock crédito al consumo	Millones de €	151.915	156.763	157.936	160.911	166.502	203.595
	% cto. Anual	2,8%	-1,0%	0,7%	1,9%	3,5%	5,3%
Andalucía	Millones €	17.288	17.871	17.773	18.083	18.556	22.941
	% cto. Anual	2,8%	-1,2%	-0,5%	1,7%	2,6%	5,5%
C.A.E.	Millones €	6.699	6.689	6.527	6.497	6.702	8.375
	% cto. Anual	3,6%	-5,9%	-2,4%	-0,5%	3,1%	6,0%

Bost urteko aldi horretan, kontsumorako kreditu stockaren batez besteko hazkundeak ibilbide zabala izango du lurraldez lurralde: Galizian % 3,2 haziko da, eta Kantabrian, berriz, % 7,6.



Kutxabanki buruz

Kutxabank erakunde liderra da Euskadin eta Kordoban. 700 bulego inguru ditu, bere jatorrizko lurraldeetan kapilaritate handiena duen sukurtsal-sarea, eta presentzia nabarmena du Andaluzian, Madrilen eta Katalunian. 5.000 profesional baino gehiagoko taldearekin, Kutxabank da, Europako ikuskatzaileen arabera, gure finantza-sistemako bankurik kaudimendunena eta Europar arrisku-profil onena duen hirugarren erakundea.